

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Udala**

Hezkuntza: 2022/2023 ikasturtean seme-alaben hezkuntzako gastu orokorretarako Getxoko familiei eskainiko zaizkien diru-laguntzak emateko deialdia. BDNS (Identif.): 648257.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/648257>):

«Hezkuntza: 2022/2023 ikasturtean seme-alaben hezkuntzako gastu orokorretarako Getxoko familiei eskainiko zaizkien diru-laguntzak emateko deialdia».

**2022KO IRAILAREN 13KO TOKI GOBERNU BATZARRAREN AKORDIOAREN LABURPENA:
2022/2023 IKASTURTEAN SEME-ALABEN HEZKUNTZAKO GASTU
OROKORRETARAKO GETXOKO FAMILIEI ESKAINIKO ZAIZKIEN
DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ONARTZEN DUENA**

Lehena. — Onuradunak

Hezkuntzako gastu orokorretarako den honako diru-laguntza osorik edo zati bat eskuratu ahal izango dute 2022ko urtarrilaren 1etik gutxienez erroldatuta dauden herritarrek. Era berean, antzinatasun berean eskolatuta eta erroldatutako seme-alabak izan behar dituzte, haur hezkuntzako bigarren ziklotik (hiru urte) DBH mailara arte barne eta Behar besteko baliabide ekonomikorik ez izatea.

Bigarrena. — Xedea

Getxoko umeen eta gazteen hezkuntza-jarduera sustatzea eta laguntzea.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Oinarri arautzaileak Toki Gobernu Batzarraren Akordio bidez onetsi ziren eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira deialdiaren argitarapenaren egun berean.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Deialdiaren zenbatekoa 150.000 euro da.

Bosgarrena. — Eskerak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea hile batekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita

Getxon, 2022ko irailaren 13an.—Hezkuntza Zerbitzuko zinegotzi delegatua, Asunción Olaeta Pérez de Mendiola